

GUEROCO GUERO

(Jarrapena)

II BURUA

*Joangoicoaren misericordian fiatutic ezta penitencia eguitea gueroco
ichi bear.*

1. §.

San Agustinec diño de vera et fals. penit. Jaigocoaren misericordian gueiegui fiatuten dirianazaz verba eguiten dabela, one-lacoac esan oi dabela uste guzurrescoaz: «erruquiorra da Jangoicoa, »misericordia duna, biotz-bera, maitetasunez ta ontasunez betea; »eta alan eztodogu cer saiatu tematu ta estu-larritu bearric obra »onac eguitera. Eta bada ez da eceren pelligruric, bardin da biar, »edo guero. Euqui guiñei esperanza, seguridad, ta sinistea, vicitza »lucea emongo deuscalat: eta nos nai, zartasunean, ta ilteco orduan bere, gure becatuac, gaistaqueriac, ta deunguero eguiñac guztiac »parcatuco deuscuzala. Bada Jaun batec ain onac, ain erruquiorrac, »ain bigunac, ain gozoac, ta maitegarriac ecin bestela eguin lei, »ecin gachic iñori eguin leio».

«Gugaitic Cerutic lurrera jatzi zan: gugaitic vicitza galdu eban: »gugaitic bere odol guztia emon eban: eta odol onegaz, bere Aita »ta gure arteko aserrea ta areriotasuna quenduric, becatuen zorra »oso osoan quitutu, ordetu eban: ta catibutasunetic ateraric liber- »tasunean ifini guinduzan. Eta Jangoicoac onelaco gauzaric egelin »baño len, legue zarrean bere, gaistoac eurac condenetan cirian, »ta ez besteric. Ori danez orain eztira gaisto guztiac condenetan, »edo gaistoac erraz obetu, onduten dira. Cergaiti ce bestela, ce dife- »rencia ce (bestetasun) banatasun legoque lenagoco demporataric »oraingoetara? Edo ce provechu ce on guenduque guc, Jangoicoa »mundu onetan ibiliaz, ta nequetuaz? Eta Jangoicoac esan beban

»bere Math. «asco diriala deituac, baña guichi autuac: orregaitic »bere ezdugu guc Christiñau fededun sinisleoc cer iztu, cer icaratu »ez bildurtu. Bada Christiñauac baño eztira salvetan, eta guichi dira» Christiñauac Christiñauac eztireanean aldean. Eta alan esaten danean, asco diriala deituac, adietan da, Gentil fede bagueac, Moroac, Turcoac, Judeguac, Heregeac, ta beste Elessa santatic campora mundu guztian zabalduric dagozanac, diriala deituac: Baña guichiac Christinauc eurac autatuac, ta ez besteric.

Onela diño San Agustinec esan oi (daroela) dabela becatari itsu ascoc. Baña parteric gueienean diñoe deunguero ta ondo deunguero. Verbacuntza gaisto au, gure arerio asmutsuaren buruan pensatua, ta asmatua, ta sortua da, ta andic urtena ta jaioa. Bada orain Jangoicoaren semea guizonduric il ezquero, errezagor bida bere salvetea, ta becatutic urtetea len baño. Baña orain bere urten ta jagui bear da becaturic; ezta erraztasun aren esperanzan becatuan egon bear.

Arerio gaisto onec, gure Jangoicoari, Temploaren ganerarenteaco eroan ebanean, esan eutsan leguez: bota eguiela andic beera bere burua, cerren Angueruac jasoco ebela, minic ta calteric artzetic gordeco ebela» Math. 4 (?) Alan dirautsu zuri bere orain: bota eguizu ezarri, egotzi eguizu ceure burua, gogoan darabiltzun becatu orretan: cumpli eguizu ceure guraria ori; etzaitez iñolacoz atzeratu. Bada izanic Jangoicoa ain ona, ta erruquitsua, ez jatzu damutuco, ez jatzu calteric ez zorigachic etorrako. Zugaitic vicitzea emon ebanac, aimbeste neque-pen igaro cituenac, ez tau ez, oneec guztioc, alper galdu ditecen, guraco: etzaitu galdutera ichico. Bota eguizu bida orrela zure burua, eguizu becatu, fia zaite, ez eguizu euqui eceren bildurric.

Auxe berberau da deabruaren verba-eguicunea, bere escolan icastecuan iracurria, an ereina, ta andic zabaldua. Jangoicoaren ontasunetic ta Pasiño Santuko merecimenduetaric, ta valio anditic gura dozu artu videa, ocasiñoa, ta ausardia, becatu eguiteco, ta becatuan egoteco. Ain andia da itsutasun au, ta becatari galduen contu char au, ece gure Salvatzallea quexetatu ezpazan bere, gugaitic igaro cituen neque, garratzmin, lotsaria, ta eriotzaz; baña quexatu zan mindu senticortu zan bide bague ta ezquerbaguetasun onegaz, esaten ebala: psal. 128. «Ene sorbaldaren gañean eguin eben egur becatariac, an euren gaistaqueria landu lucetu ta zabaldo eben». Esan gura dau, gaistoac euren gaistaqueriac eguiteco, ta aetan lucero egoteco artuten dabe cimendutzat, ta ocasiñotzat, nic nire sorbalda ganean artu nituen azoteac, colpeac, penac ta mintasunac,

Eta euroetan fiaturic, euroetan esperantzaturic, ta ontu eguinic bardin nic eurac gaitic pagatu, quitutu, ordetu nebala, asartu ta aurretuten dira becatu eguitera esan oi dabela: Erruquitsua da Jangoicoa maite gaitu, ondo gura deuscu, bereac eta bere odolaz erosiac gaitu, men menera, estu estura gatozanean, uts eguingo ezteuscu, larga ta aztuco ez gaituz; ori danez, artu guiñei; escu ta baimena becatu eguiteco. Baña ay: contu charra da ateraten daben au. Esan bear da misericordiotsua dala gure Jangoicoa, onelaco lotsa bagueac, onen loi atsituac sufriean dituenean.

2. §.

San Basilio beste verbacuntza batez valiatuten da, gai onen ganean verba eguiten dabenean, esaten dabela homil. sup. psal. 32. «Eztidilla iñor Jangoicoaren misericordiaz gueiegui, lar ascoegui »fiatu, cergaitic ce Jangoicoac gure eguite guztiac, contuan, pisuan, »neurrian contatu, pisetu, neurtu, ta mugatuten dituen leguez: »alan bere ontasunaz, misericordiaz, erruquitasunaz bere, contuz, »pisuz, neurriz, estutasunaz, justiciaren erara, valiatzen da». Espiritu Santuac diño prov. 25. «Idoro dozu eztia? jan eguizu bada neurriz, »bear bear dozuna bacarric, ta ez gueiegui ase-bete, errebesatu »eztaguizun aotic biurtu eztaguizun».

Justicia min da, ta garratz; eta misericordia gozo ta ehti. Baña eztia ta gozotasun ataric, eztia gozoa izan arren, ezta lar jan bear; ezta misericordiaren eztitasunean fiaturic, becaturic egui bear. Bada alan eguitea, eztia gueiegui jatea da.

Espiritu Santuac berac diño Eccl. 5 «eztaguizula esan, misericordiotsua dala Jangoicoa, ta ceure becatu guztiac parcatu deutsuzala: cerren misericordia ta justicia ur jagocaz Jangoicoari, »alcar baturic dagoz, ta justicia becatariai beguiratzen dago». Misericordiaren gozotasunari beguiratuten deutsezun leguez, beguiratu bear deutsazu justiciaren garratzasunari bere. Bada Jangoicoagan ain andia da justicia, cein misericordia. Misericordia ta justicia bardinac dira pisuan, balantzan, neurrian.

Eguia da Santo Tomasec diñoan leguez 2. 2. q. 21. art. 2. «Berez »danez obeto jatorco Jangoicoari, ta prestago ta macurtuago dago »misericordiara, justiciara baño; bai ta parcatutera bere, castiguetara »baño. Eta alan eguiten dau ascotan gugaz misericordia, guc mereci »baga, bere ontasun ta erruquitasun beragaitic; baña ez gaitu beimberre castiguetan, eztau gugaz usetan bere justiciaz, arbintasunaz,

»ta aserreaz, guc lenagotic gueure becatua caz artara beartu bagas. Baña izateaz danez, aimbat justicia, cein misericordia dago Jangoicoagan; aguertu ta icusico dan leguez beste munduan, emengo misericordiazco dempora au igaro dedinean. Agaitic diño David Santuac psal. 10. «Jauna, misericordia ta justicia cantatu deutsu-daz»: biac bardin, ain ondo bata, cein bestea.

Misericordiaz bacarric, justiciaz conturic eguin baga, verba egui-ten dabenac, eztaqui cer esaten daben, eztau alacoa justiciaren anditasuna icusten, ezagututen, oartuten. Eta ara celan eztacusen: Zuc diñozu misericordiosoa, erruquitsua dala Jangoicoa, ta ondo diñozu, ta uste dozu. Baña zuc Jangoicoa ontasun ta misericordia andicoa dala aotortu ta diñozunean, beguiratu bear dozuz justicia aserre, ta bere gogortasunaren inguruac, ta colpeac bere, oneec gogoraturic ta beguiraturic esperanza, icharomen, ichadote utsac zoroac, cimendu, ta errazoi bagueac larga daguizuzan.

3. §.

Justiciaren lenengo colpea, descarga, goiberatutea izan zan goian, Ceruco Angueruetan, Lucifer soberbiotsu ta bere lagun gais-toen ganean. Ceruco Anguesuric ederrena, aurrengoen, ta Jangoicoaren adisquideric andiena, bota ta ondatu eban justiciac soberbia, andiuste, goitura, arrotasuneco becatu bategaitic, betiraun guztico seculako Infernuco necaldi garratzerara. Eta Angueru guztien lenen-gea, nagusiena, aurreratuena, ta aguintaria eguin zan Deabru, ta Deabru guztien buru, aurreratzalle, ta Capitai. Zanic ederrena politena, galantena, arguiena, egui zan ezainena, itsutsiena, baltz, ilun, izugarriena, ta gaistoena. Maitagarriena, gorrotogarriena, ta goiena, beerena. Alacoz ece Isaias Profeta Santuac, ain jausquera andiaz mirarituric itanduten deutso Lucifer berari Isai. 14. «Celan orrela jausi cinean Lucifer? Celan jausi cinean egun sentico izarra, eizarric argiena, goxean gox, egun sentian sortu jagui oi ciniana? »Ain gora cengo zana?». Andia ta icaragarria izan zan, Ceruan Justiciac eguin eban colpe ta castigu bildurgarri au.

Bañan egui zan lurrean bere beste bat, ez chiquiagoa, baldin erremedioric ordenatu ezpalichaco; eta zan Adanen becatuari emon jacon castigua. Ceruan Luciferrec berac egui eban becatu; eta ezta miresteko bacochac bere pecatua paguetea, norberac egui niko becatua gaitic, penatutea. Baña lurrean besteren becatua gaitic, Adanena gaitic, aren ondorengo guztiak, oraindo jaio baño len, euren

Amaren sabelean sortu ta biztuten dirian potian, unean bertatic gelditutene dira eguinic becatari loi ezainduac. Eta aimbeste urteen buruan echacula aztu Jangoicoari a becatua, nor eztau mirarituten? Non emon lei justicia gogorra goric?

Erruquiorra, misericordiatsua da Jangoa, ta bere misericordia ta ontasun guztiaz, beguira jagoco Infernuan dagoan bati: icusten dau, ta icusicc dau, celan milla urtean, ta amar millan penatzen dagoan. Eta orregaitic bere, alan icusia gaitic bere, an bere lecuan ichiten dau. Echaco bapere biotzic austen: eztau areambere alan dagoanaren on-bearrac erruquituten. Lenago bai poztuten da, atseguin artzen dau, alan penatuten icusteeaz; ta gura dau pena dedin; bai ta andic jagui ta urteteco esperantzari baga pena dedin-Gogortasunaren andia! Justiciaren gogorra! Zuc diñozu erruquiorra dala Jangoicoa. Baña onetan dirudi justiciadunago dala; ta justiciac goiartu, azpitu venzututen dabela misericordia. Eta errazoiaz dirudi alan. Cerren ezta beste munduan izango gaistcentzat misericordiaric.

Misericordiatsua da Jangoicoa, baña esan bear da justiciatia bere dala. Cerren munduari parcatutera, ecin ecerberec bigundu ta maaiztu eban, ez ecarri maitetutera, ezpada bere Semearen eriotzeac.

Misericordiaduna ta erruquitsua da Janga, eta orrez guztiaz, Noeren demporan zortzi presona ez beste guztiac, uriola bategaz ondatu, ta ito cituan. Bardin Sodoma ta Gomorra inguru ta auzoco beste erri batzuecaz, su ta garra Cerutic biralduric, erre cituan. Bardin Datan ta Abiron lurrac euren lagun gaistoa caz irunsi cituan. Eta orduan oneec guztioc Infernura jatsi cirian. Eta orain bere infernuratuten dira Christiñau eztirianac. Eta bildur nas Christiñauetaric bere, gueinac araco videan dabiltzela, bada gueienac deunguero vici dira, deunguero confesatu..... Eta esaten danean asco diriala deituac eta guichi autuac, Christiñaua caitic bardin adietan da. Bada non da Christiñauric, Christiñaua leguez vici danic? Beardan leguez Jangoicoa maitetu, ta servitzen dabenic? Bere mandamentu edo aguindu santuac gordetan dabenic? Bear dan prestaeraz Sacramentu Santuac artuten dituenic? Edo bere naicunde, desevo, gurari char bat eguitetic, Jangoicoa gaitic atceratutene danic? Ete dago munduan bat alacoric? Bai, bagoz batzuc, cerren Elessa Ama S.^a ecin legoque alacoac baga. Baña guichi. Eta onegaitic Escritura S.^{an} bardinduten dira Christiñau onac arri preciatuaz, adierazoteco, arri preciatua leguez, Christiñau on guichi

dala, ta neurri chiquicoac diriala onac. Eta celan beste arriac, preciatuen aldean, ascozaz gueiago dirian; alan gueiago diriala condenetan dirianac, salvetan dirianac baño; alacoz ece Salomonec diño «cero gaistoen neurria azquen ta muga baguea dala; neurtu ecin »leizala condenetan dirianac».

Bada asco condenetan badira Christiñau fededunetaric bere, cegaitic zu bere Christiñau sinistea izan arren, etzara bildur izango, condenatuco dirianetaric izango ete zarean? Oraindiño asco bota ditu Jangoicoac Infernura, cegaitic bada etzaitu zu bere ezarrico, botaco, egotzico, baldin ara bota dituzan antzera vici bazara? Uste dozu, zuretzat legue barriren bat ifinico dala? Uste dozu Jangoicoa an goian zu baga ecin egon ditequela? Edo zu ara ez eroateaz, bere gloria galduco dabela, edo guichituco jacala? Ce aurre vide, burupe ce privilegio ce merecimendu gueiago dozu zuc orak, Infernuan dagozanac euren demporan euquena baño, baldin aec leguez vici bazara, ez aec leguez condenetaco, ta an egoteco iñora urten baga? Eta Jangren misericordian fiatuten bazara, eztozu gogoratuten orain Infernuan dagozan zorigaistoac, euren demporan zu orain leguez fiatuten ciriala? Jaquin eguiyu, ece misericordiac onai gloria leguez, justiciac bere gaistoiak infernua emoten deutsela.

4. §.

Izan agaitic Janga biotz beraa, erruquierra, misericordiatsua, ezta ez emetic artu bear bideric, ez ocasiñoric, ez ausardiaric, ez atrebenciaric becatu gueiago eguiteco. Bada au liteque contrameñeo, eden edo pozoia, eden edo veneno eguitea; Jangren misericordiaz, ta ontasunaz contrara usatutea; eta bai misericordiaric eztan lecuan bere, oña irmetutea, pelligru galgarrian ifintea. Badira biderio batzuc, begui-orde batzuc, gauzac dirian baño andiago irudi erazoten dabenac. Eta jazo daitequen gauza da, alaco beguiordea caz zubi batetic igaroten zareala, zubia dan baño zabalago irudituric, ta Zubiric eztan lecuan oñac ifiniric, jaustea zubi azpico oxinera, ta an ondatu, ta itotea. Bada Ceruco Gloriara igaroteco zubia, misericordia da, ta baldin misericordiaren zubi onetaric igaro gura badozu zuc ausardia gueieguaiz fiaturic, esperanza zoro uts baten begui-ordeac ifiniric, eta irudituric, Christiñau zarealaco, ta Jangcicoaren ontasuna andi zabala dalaco, ori beragaitic beste baga salvatuco zareala, engaña cintequez, uts eguin ciñei, ta mise-

ricordiaren zubiric eztan lecuan, esperanzaren oñac ifiniric, usticiaren oxinean jausi cintequez. Bada Jangoicoaren ontasuna ecin gueiagoan andia, neurri ta muga bagua izanagaitic, ezta ez adituten, ta ez orregaitic adierazoten, anditasun ac zuri becatu eguiteco videa ta ocasiñoa emon bear deutsula. S.^o Agustiñec diño in psal. 39. «Ezta »Jangoicoa alaco moduz misericordiosoa, non justiciari bide bagueric eguingo deutsan».

San Agustinec berac diño in psal. 58. «Castigatu daiguzan gueure »becatuac eguin daigun aen penitencia, baldin gura badogu erdetzi »Jangoicoaren misericorda. Cerren ecin Jangoicoac parcatu leio »becatariari, becatuetan dagoan artean; euroetan atseguin artzen »daben bitartean, euroetatic alde eguitera abiatuten eztan arteam. Ezta Jangoicoaren misericordia orrembesteraño eldutene, ez zabaldutene. Eta ez ain aurrera eldu ta lucetute au, eztator bere misericordiaren escastasunetic, urritasunetic, laburtasunetic, ezpada gauzaren ecinquizunetic. Ezta esaten misericordiosoa dala Jangoicoa, becatuan dabillenari, alan dabillenean, ta ibilteco gogoa dabenean, laquetu ta parquetan deutselaco. Baña esaten da misericordiosoa ta erruquiorra dala, araco bere becatuac bear dan bidean ichiric, demporaz beragana etorriric, ta aleguin guztia eguiten dabenari, ucatutene ezteutselaco bere gracia, parcamendua ta adisquidetasuna. Eta asco da au, ta onela eguitea, misericordicsoa izateco.

Enzuten dozunean, biotz beraa, erruquiorra, ta misericordiotsua dala Jangoicoa, poztutene zara, atseguinā artzen dozu; ta enzuna gaitic ciurra, castigatzallea, gogorra, ta justiciatia bere dala, eztozu arduraric artutene. Bada Escritura Santuan, Jangoicoac esqueñiten dituan mesede andi, gozo, misericordiazcoac, justuentzat, santugaintzat, ondo, artez, zucen, prestutasunean bici dirianentzac dira: eta barriz cemaiac, menazuac, quiñadac, justiciaren garraztasuna, gogortade, aserre, ta castiguac, gaistoentzat, zu ta zu lacoentzat dira. Ce zoraqueria bada da au, zuretzat dirian cemai, menazu, ta castiguaz ez conturic, ez arduraric ez bildurric artzea; eta zuretzat eztirian misericordiazcoac solatsez, gozotasunez, atseguinaz artutea? Misericordia santugaiai, justuai, zu ez leguezcoai dagoquie. Ez dozu zuc, becatuan zagozan artean atan parteletasunic, ez icusquizunic; ez dozu orduan, Jangoicoa misericordiosoa dala enzun arren, cer pozturic. Bada orduan, justiciac bai, baña misericordiac eztau zugaz verba eguiten, ezta orduan zurea. Aparta zaite becatutic, alde eguin zaite vide deungue orretatic, urten eguizu ego-taldi bildurgarri orretatic, ta izango da zurea; igues eguizu beca-

tutic, ta izango dozu parte. Baña bitartean, justicia euqui eguizu zuretzat; ta ichi eguizu misericordia, euren becatuetatic alde eguiten dirianentzat. Cerren bestela, eragotzian gura dozuz escuac sartu bestearena gura dozu ceuretu, jabetu.

5. §.

Esango dozu beti dala on esperancea, beti bear dala ichadon. Eta ondo diñozu, eguiua da, alan da. Baña nos, ta celan beti? Becatu eguiñezquiero, baña ez eguitorduan.

Ezta Jangren ontasunean fiaturic becaturic eguiñear. Susana Andra Santeac gurago eban, gende gaisto batzuen escuetan jausi, Jangren misericordiaren mendeau baño Dan. 13. Baña David Erregueac gurago eban, guizonacaz baño, Jangoicoaz disputatu, contuac emon, ta beragaz bere deunguero eguiñac igaro 2 Reg. 24. Eta biac, alan Davidec, celan Susanac eroien contu ona. Bada Susana zan becatu eguiñ bagaea, ta David becatu eguiña. Eta becatu eguiñezquiero, Jangoicoaz contutu bear gara, ara laster, an confiatu, aren misericordiaz valiatu bear da. Celan Cesar edo Erregue condenatuac, apelatu eban Cesar beragana, Cesar aserratua ganic, Cesar ez aserratua gana: aian becatariac bere bear dau apelatu, Jangoicoa ganic Jangoicoa gana: Jgoico justiciazcoa ganic Jgco misericordiazcoa gana. Becatu eguiñezquiero, ezta beste videric, ezta beste erremedioric. Baña iñor becatu eguiñ bagaea danean, Susana leguez, obe da eguitecoac alde onetaric eguitea, obe da guizonacaz disputac eguitea, ta aetatic etorri al daquiozan calteac ichadotea, ece ez Jangoicoagan, ta aren misericordian fiaturic, becatu eguitea. Baña guc contrara, oquerretara eguiten dogu. Conturic euqui baga gue-roco etorquizunaz, uste dogu guero Jgren misericordiara igues eguingo dogula. Orain gueure escuan daucagun dempora onetá eztogu becaturic ez eguite arren, atseguinic ichi gura, ta ez penaric, nequeric artu: gurago dogu, etorquizuneco pelligru ta gach gogorrai jarraitu, oraingo neque apur bati baño. Eta cec eguiten dau au? Fiatzeac, contu eguiteac, bardin guero Jgoicoaren misericordiac guztia parca-tuco deuscula ta erremediatuco gareala. Contu charra! fiatze espe-rantza eroa!

Fiatzen zara, becatu eguiñezquierozco calteac erremediatuko dituala Jangoac; eta etzara fiatuten ta ez gomutetan, erremedia al leiquezezia bardin, zuc becaturic, ez eguiñ arren, etorri al licha-quezuzan atsecabac, ta eguitecoac. Bear eztanean fiatzen zara, ta

ez bear danean. Bear eztanean iruditzen jatzu andia Jangoicoaren misericordia, ta ez bear danean. Amar ezcuto bear dozuzanean edo beste premina ta estura bat dozunean, etzara fiatuten eztozu uste, baldin ondo vivi bazara, becaturic eguiten ezpozu, Jangoiccac zure premina, ta beertasun ori estaldu al leizula. Eta alan ceure esperanza bagueaz eguiten dozu becatu, ostutene dozu, eguiten dozu lapurqueria bat. Eta eguiten dozu lapurreria ori esperanzaz, guero bardin Jangoico erruquitsuac parcatuco deutsula orrelaco becatua. Itsutasunaren andia! Orain Jgoicoaren adisquide zareanean, becatu baga zagozanean, ez dozu esperanzaric Jgoicoac zugatic ecer al daiqueala, zure beertasuna estaldu al leiqueala; eta guero arerioa zareanean becatuz betea zagozanean, uste dozu, guztiac parcaturic, bere gracia ta gloria, ain gauza andiac, valiotsuac, ta erdetsiteco gachac, emongo deutsuzala. Gauza erracean etzara fiatuten, gachean barriz bai. Becatu eguiten dabentzat daucazu Jgoicoa andi, zabal, prestutzat: eta becatu eguin baga, ondo vici dirianentzat, uste dozu dala estua, cequena, orria, prestubaguea. Guztian zabiltz, ta gabiltz nastuac, itsituac, uts eguiñac.

6. §.

Ez uts eguiteco, ta bear dan leguez esperantzea euquiteco cer eguin bear da? David Erregueac eranzuten dau: psal. 4. «egizu on, al daizun eguite onetan emon zaite, ta orduan icharon egizu »Jangoicoagan». Cerren bestelaco esperanzac guichi valio dabe.

Egun baten etorri jacazan Frai Gil Santuari Cardenal batzuc visitetara. Eta bere bisita azquenduric, joate orduan esan eutsen, arren escatu leguila Jangoicoari eurecaitic. Eranzun eutsen Frai Gilec: Jaunac, euroc nigaitic eguin beardabe: cerren nic baño euroen mesedeac siniste ta esperanza gueiago dauquee, Baña celan al dite-que ori orrela, cirautsen Cardenalac?

Cerren gu gabiltz munduaren barruan sarturic, aberastasunez beteric, ondasunez, atseguiñez, ta zorionez ganez eguiñac, Zu barriz penitencietan, eguite onetan, munduko cereguinetatic campean, ta orrez guztiaz bere diñozu, siniste, icharomen, esperanza gueiago dauquegula zuc baño? Bai, dirautse. Bada biciric zuen Mesedeoc bici dirian leguez pocic, eceren bildur baga, salvetaco esperanza ta segurutasun andiaz dabiltz. Baña ni nabil bildurturic, icaturic, ea cer becatari andi onegaz jazoco dan; ta beragaitic euroc nic baño esperanza ta siniste gueiago dabe.

Icusico dozu, persona batzuc, malicia, malsintasuna, engañu, ta guzur utsa baño eztirianac, dan Santuenac baño buruac gogorago dituztela, ta salvetaco esperanza gueiago dabela; alacoz ece, zatozanean aecaz verba eguitera, esango deutsue, ez leuquela euren esperancea zureaz trucatu: eztauquela iñorbere euren buruac baño santuago ez prestuagotzat; beste edoceinec beste ondo Jangoicoari esqueñiten diriala. Eta bitartean beguietagiño becatuaren oxin ondarrean sartuac dagoz. Itsutasunaren andia! deabruaren engañamentua! Uste badabe, ta uste badozu becatuetan zagozala. Cerua emongo jatzula, misericordia eguingo jatzula, ori da, Jangoicoaz, ta Jgoicoaren ontasunaren barre ta mezprecio eguitea: ori da esperanza esperanza bagua, confianza eroa, icharomen gañez eguiña, larreguia. Eta ezta ori esperancea bere, ezpada ausardia, atrebencia, uste utsa, presunciñoa, nai-gura eroa; eta misericordia elduten dan baño aurrerago, zure deseoa lucetutea. Orrez gueiago, ori da Espíritu Santuaren contra dirian becatueiatic bat. Eta alan misericordiaren esperanzan becatu eguiten dabenac, eztau misericordiaric mereci. Cerren alangoa, misericordia beraren contra dabil. Alan adierazoten dau San Basilioc penitenciaz verbatuten dala tom. 25 de penit. «Penitenciaren esperanzan becatu eguiten dabenac, eztau »bide ona artutene, eztau penitenciac valio daion mereci». Eta era onetara esan lei, misericordiaren esperanzan becatu eguiten dabenaz bere, eztabela onec bere misericordiaric mereci.

Gura bogu, erruquitu daquigun gueure Jangoico maitea, enzun gaguizan, lagun daguigun, ta euqui daguian gugaz erruquia, abia gaitezan gu bere gure aldetik, presta gaitezan gueure eguinvidea eguitera, becatutik alde eguitera, ta mandamentu Santuac contuz ta gogoz gordetera. Onela bai, baña bestela, bestelako esperanza guztiac, eztira esperanzac, uts alperrac dira zoraqueria dira.

Bada onela, eztogu misericordiaren esperanzan becaturic eguin bear; ta ez aren ustean penitencia eguitea, ta ecandu charrac ichitea, ueroco lucetu bear. Lenagotic bai, cerren Jangoicoa dan ain ona, biotz beraa, ta erruquiorra: cerren ain maite gaituen; cerren becatu eguin ta bertatic ez gaituen castiguetan; cerren icharoten deusunc; ta azquenik, cerren aimbeste on, esquer, ta mesede eguiten deusucuzan, agaitic berakaitic, ataric ocasiño ta vide arturic, bear guenduque, bestela eguingo guenduan baño obetoagc, eguin aren vorondate ta nai santua: eta baldin becatu ta gaistaquerietan orainguiño ibilli bagara, onec guztioc largaric, prestuac ta leialac izatera abiatu ta prestatu erabagui: ta alaco moldez, taiuz, ta moduz aurrerantzean

gobernatu, non azquenean, Jgoicoaren misericordiaz batera erdetsi daigun guretzat ordenaturic, aguinduric, esquiñiric, ta prestaturic dagoan pozcaria gozoa, cein dan Ceruco gloria.

12 BURUA

Guerotic guerora ibilteaz galdueten dogu demporea.

1. §.

Guerotic guerora zabiltz, aurten gaisto izanic, urrengo urtean ondu, ta obetuco zareala diñozu. Izan bedi bada alan; zuc diñozun leguez, uste dozun leguez, ta gogoan darabiltzun leguez, jazo daquiza, guerta dedilla ta aurlen gaisto izanic, zure guero orretan, etorquizunean obetu zaitezala. Ori orrela balitz bere, non da, batetic, urte onetan eguin al ciñaiquean irabacia, ta aurreratzearen meritua? Bada Cristiñau on batec urte batean obra on asco eguiten ditu, ta bai bear-saria, merecimendu, ta arimazco ondasun andiac irabaci, ta erdeisi. Cristiñau onac urte baten aurreratutene dira, baña zu aurreratu bearrean atzeratutene zara, becatu ta gaistaqueria asco eguiten dozuzala. Eta bestetic, non da bitartean, urte onetan, zure guero orretara eldu artean galdueten dozun demporea? «Ene semea, gorde eguizu demporea» diño Espiritu Santuac Eccl. 4. Aurrean dauquezunean, zaquioz; cerren bein joanic, ezta biurtzeric, ta erdetisiteric. Ocasiñoa becoquian, aurreco aldean, ulletsu da, baña atzean cocotean, motz, soil, erbal, ulleguea, ulle baguea. Aurrean dauco nondic; lotu, nondic oratu, baña ez atzean. Beraz aurrean dozunean probecha ta valia zaite; cerren atzeraturic, joan ezquiero, ez dau ezcu-toquiric, ez lotu ta oratuteco quirteñic. Bada ocasiñoa leguez da demporea bere. Beragatic dirautsu Espiritu Santuac Eccl. 9: «Orain demporea escuan daucazun artean, eguizu al daizuna; eta »ori prest, orain, laster; cerren guero zuc joan bear dozun infernuco »leku atan, ezteutsue valioco ez errazoiac, ez jaquituriac, ez ale-guiñic andienac». Ichiten badozu, celan eztaquizula, orain escu artean dozun, demporea igaroten, eguin da, galdu da, ezta gueiago biurtuko: Agatic diño San Pabloc: galat. 6. «dempora dogun artean, »daguigun ondo».

Esan begui Aristotelec 4. *Phisico*. nai dabena demporea gaitic:

baña gure conturaco; demporea da; len, orain, ta guero gauzac ibiltea, igarotea, ta igaroaz batera igartutea, ta acabetea. Dempora beti doa. Senecac diño libr. 6. natural. 9. 8. «Dempora igaroa, ta etorquizuneco eztira gureac». Joana, joan: etorquizunecoa, etorquizun: oraingo au da gurea, ta ez besteric.

Eta oringo dempore aua bere ain guichia, laburra, ta pitia da, ece diño Santo Tomasec .l p. q. 66. a. 4. ad 4 et 5: «Demporatic ez »dogu ecer bere orain bat baxen, iraute apur bat, puntu bat, ta »ez gueiago». Eguia da baña, celan puntu onec, orain onec batu, bildu, lotu, alcartya, ta josi leguez eguiten dituan alcarre gaz igaroa, ta etorquizuna, joste onec gomuterazoten deuscu igaroa; ta etorquizunaz bere esperanza ta icharomena emotan deuscu. Eta alan, gomute, ta acordu onegaz, icharomen ta esperanza one gaz batean, igaroa ta etorquizunecoa, oraingoaz loturic eta bat eguiñic, ez jacu oraingoa presentecoa ain labur erechiten ta iruditien. Cerren guztiak alcartyic leguez, ta bat balira leguez, artuten doguz, ta onela uste eraguiten dabe vicitza lucea, diño Senecac, de brevit. vite c. 13.

Baña dana dan leguez, ta bear dan leguez dempore artu arren, idoroco dogu, ecerez bat dala, guichi bat, argal mee labur bat dala. Oraingo au gozatu guiñei, etorquizunecoa deseatu, ta igaroa alabatu, mezpreciatu, edo aitatu ta icentatu. Igaoac eztau erremedioric, a joan zan: etorquizunecoa eztaquigu emongo jacunez: presentecoa, oraingoa ain da chiquia, guichia, laburra ta igarocorra, ece orain bere, bigarren verbea asi dodaneco, igaro da lenengoa ta lenengoaren dempore.

Izan da esan dabenic, demporeea eztala ecer, bere gomuteric, acorduric, gogoric ez danean. Eta alan lo datzanari ez jacala orduco demporeea ecer iruditutien; eztabela sentitzen, ezpalitz leguez igaroten jacala. Cerren orduan eztau atan pensetan, ez gogoric euquiten.

Ura gaz gura nenduque bardindu ta comparatu demporeea. Bada demporeac ta urac alcarren antza, irudia dauque. Ura beti doa, batac besteari darraio. Igaoa aurrera doa, ta etorquizunecoa atzera dago, ta aurrean dagoanac guichi iraunten dau. Eztau iñoc igaro dan uretic artuten, ez etorteco dagoanetic bere: aurrecotic, igaraitean, aurrean dagoanean artu bear da. Alan da bada, ta alan eguin bear da demporeaz bere, aurrean daucazunetic artu ta aprobecha zaite. Bada bestela, axe ona danean vela eguin baga guelditzen dan ontzia leguez, guelditu cintezquez zu bere.

2. §.

Demporatic gauza labur chiquia, *orain* au dogu, ta ez besteric. Baña norc esango dau, cembat balio daben *orain* onec? Iraute, iraupen, bitarte, ta asti chiqui iabur onec? Aimbat balio dau, ece baldin *orain* Infernuan dagoan bati, emongo baleusquioe auquera, ea cer gueiago gurago leuquean bere escuan, ala mundu guzti au bere ondasun guztia caz, ala ordu baten dempora, ta bitartea? Seguru da, ez ordu baten dempora, ezpada beguia gora jasote baten bitartea bere, len autu ta guraco leuquela, ta obetzat euquico leuquela, munduco andiqueria, atseguintasun, ta dan guztia baño. Cergaitic ce, a apurra, danic chiquiena bere, ondo emon, bete, ta empleaturic, asco leuque orduguiñoco falta ta ust eguite guztiac erremediatuteco, osotu, quitututeco, ta Ceruco Gloria irabaci ta erdetsiteco.

Esan oi da, gauza bat preciatua ta valiotsua dala, pusca guichi bat izan arren, beste andiago batec baño gueiago balio dabenean; eta alan esaten da gauza preciatua dala urea. Beraz eguiaz da gauza preciatua, estimagarria ta baliotsua demporea, cerren dan guichiena, biotzeco damu oso eguiazco bat, asco da, salvaciñoa irabazteco. Eta ezpabere itandu eguiozu, bere azqueneco orduan ain laburqui ta laster Cerua irabaci eban Lapur Santuari, ea cer erechi jaca demporeaz? Ea gauza estimagarria, ta ecertan euqui ta maitetuco danez? Eta ac probatuac, leguez, esango deutsu, baiez, estimagarria dala, valiotsua dala, eztabela munduan bere pareric.

Ain da gauza andia, ta aberatsa, orain escu artean dogun demporaren orain au, ece Purgatorioco penac, mundu onetaco neque guztiac altar loturic oraturic ta erantsiric baño, andiagoac izanic, gueiago valio dau, gueiago eguin ta quitu-sarituten dau Jangoicoaren aurreraco, orain emen munduan obra onetan emoteac; guero Purgatorioan urte batean penatzen egoteac baño, diño Doctore batec. Lodolphus ex Saxonid l. p. cap. 20. Oraingo egunac balioco dau orduco urtea. Alan adierazoten dau Ecequiel Profeteac cap. 4. «Emon neutsun eguna urtetzat». Esan gura dau: Emon deutsudaz, emoten bere deutsudaz egun asco, ain aberartsac, valiotsuac, ta precio andicoac, ece aetaric batec balio dau, ta balioco dau urte bat. Bada guero urte bategaz eguin daitequena, ta eguingo dana, eguin liteque orain egun batean. Eta errazoia da, cergaitic ce guero, izango eztana, orain dago merecietaco, aberastuteco, zorionduteco, ta ondasunac aurreratuteco dala, indarra, auquera, ta libertadea. Eta bardin, cergaitic ce era bico, penac dira; bata da: *bestec emoten*

deuscuna, bestetatic eldu ta etorri jacuna, celan dan Purgatorioco penea, ta jatorcuzan gaissotasunac.

Beste bat da, *pena artua*, gueuc gueure borondatez artzen doguna, celan dan, eguiten dogun penitencia, baraututea, oraciñoan egotea, erromeria santuac ondo ibiltea. Eta pena onec, gueuc guere borondatez artzen dogun onec, eroaten deutso aurrea beste peneari, bestec emoten deuscunari, pacienciaz artua izan agaitic bere. Cerren Purgatorian dagoanac gura leuke andic urten ta libratu, ta bai gaissoac bere osatu, sendatu, ta sendotu.

Baña orain gueuc gure borondatez eguiten dogun penitencia, ta artzen dogun nequea, alde guztiz da borondatzcoa, baliotsua, ta Jangoicoari eder jagocana. Eta alan onec daroio Purgatorioco peneari, ta gaissotasunescoari bere, ureac beste diru gustiac daroien aurrea ta baliotasuna. Cerren Jangoicoac beguiratuten badau bere igaroten dogun penara, baña are gueiago beguiratuten dau, artaraco borondatera. Bada alan, orain penatu, barautu, ta penitencia eguin bear da. Cergaitic ce oraingo pena chiquiac, gueuc borondatez artutem dogunac, gueiago balioco dau, Purgatorioco, ta gaissotasunesco neque andi latz gogorrac baño. Eta alan dirudi, Purgatorioan dagozanac, eztabela ecerberez damu andiagoric, nola demporea galdu izanaz, deunguero emonaz, ta euren buruac euren borondate, guichi bat baño ezpada bere ez penatu izanaz munduan egocenean. Orregaitic esaten dau Sn. Juan Chrisostomoc hom. 57. in joan. 9. «eztozu beguiratuten, beste gauza guztiak len ichi bear diriala gatzera, demporea baño? Cerren urea ta cillarra cobraturu litequez galdua gaitic, baña ez dempora.

3. §.

Ezta munduan gauza balio andiagocoric, diño Sn. Bernardoc ad scolast. demporea baño, baña ai, ezta gaurco egunean gauza ecerbere ezagoric idoroten. Eztogu ecerez, ain contu guichi eguiten cein demporaz. «Nor da itanduten dau Senecac, demporeari zor jacon precioa emoten deutsenic? Eguna mereciten daben leguez, estimetan dabenic?

(fitsaren) bitzaren bardin ecerezaren, pare daucagu demporea. Dirudi, gura guenduquela ascotan, ezpaliz bere; bada gabiltz jaquin baga, certan igaro; Ordu baten gagozanean, bigarrenean baguiña desetan dogu. Esan bear da, aberats gagozala, munduan dan gauzaric aberatsena ta baliotsua orren francu ta guichitan darabil

gunean. Bada alan zuc, eta nic bere demporea galtze one gaz, probechu baga igarotera ichiaz, ondo contu estua emon bearco deutsagu Jangoicoari.

Iru era, modu, edo guisara, esan al liteque, galduen dala dempura. Lenengo, becatu eguiteaz, ta becatuan egoteaz. Bebatu eguiten zagozanean, eguin ezquero, ta aetan zagozala igaroten dozun demporea, emozu galduzat. Ac demporac eztau ecerbere balio zuretzat. Lenagotic bai aetan ceure arimea, ta arimaco ondasun guztiac, eta comunqui gorputzecoac bere galduen dozuz, ura beera leguez joatzuz. A da demporaric galduena, ta galgarriena, negargarriena.

Bigarren, galtzen da dempura, gogoeta ero, zoro, uts, arro, bapere balio eztaben batzuetan egoteaz. Ceu bacarric, alperric, ceure erara, eguitecoric baga, ondo jana, ta obeto edana zagozanean, eta batezbere oean loz aseric, arduraric baga zatzazanean, eguiten dozuz ceure artean milla asmo ta gogoeta, milla torre ta gaztelu. Eguiten zara Aita Santu: eguiten zara Erregue; aberastuten zara: eguiten dozuz pamparroitasun ta balentia asco. Jatortzu joco eder bat, irabazten dozu. Onela darabiltzuz ceure buruan ta gogoan, alan balira leguez, gura cenduquezan gauza batzuc. Eta secula alan izan, jazo, ta guertatuco ezpadira bere, orrez guztiak, alan pensatzeaz beragaz, gogoraciño uts ero onetan egoteaz, atseguiña artzen dozu. Eta bitartean eztozu gogoratutenean, zuc ateratzen dozun probechua, dempora galtzea dala, ta ez besteric.

Irugarren, galtzen dabe demporea, gorputzeco atseguiñetan ta gustu ciquiñetan ibilteaz. Esan oi dozu, igaro daguigun demporea, jocatu daigun, dantzatu, josta, ta diberti gaitezan. Eta barriz, ez jatzu gogoratutenean, bitartean demporea galduen dozula. Bada San Bernardoc diño in medit. c. 6. «Jangoicoagan pensatzen eztozula oigaroten jatzun dempora guztia, eguiyu contu, galdu dozula». Alan diño San Geronomoc bere ad eust. «obetu ta ondutenean gauza onen obat eguiu baga, igaroten jatzun demporea, uste eguiyu galdu dozula». Ezta asco, gauza deungueric ez eguitea; ezta asco ez gaistotutea, ezpada ce ondu bear da, on eguiu bear da: ez aurreratutea, atzertututea da; cerren bitartean beste calteric ezpada bere, demporea galdu, ta probechatu baga igaroten da.

Contu eguiyu ece, orain dozuzala berroguei urte. Eta contu eguiyu bere, ta gogoratu zaite ceimbat obra on eguiu dozuzan berroguei urte orreetan, ta aurquituco dozu, ece baldin cin ciñez, ta gogo oso guztiak abiatu, ta emon izan baciña, berroguei urte orreetan eguiu dozuzan eguiquera, ta obra on guztiak, eguiu ciñeiquezala

urte batean. Bada orrela galdu dozuz beste urte guztiac, berrogueitatic, ogueta emeretziac. Ce contu emongo dozu bada urte aena? Verba alper guztien contua emon bearco bada, cer aimbeste urte galduena, ta alperric emonena? Errazoiaz diño Jeremias Profetac tren. «Deitu eban demporeac nire contra». Guc galtzen dogun dempora berac salatuten gaitu, a bera jaguiten da gure contra.

Beste gauza guztiac besterenac dira, baña ez demporea, au gurea da, diño Senecac epist. 4. Orain escu artean dogun demporea presstatuten deuscu Jangoicoac, emoten deuscu, ta ichiten deuscu gueuretzat. Eta gura dau, provecha gaitecen, eguite onetan emon daguigun, ta alan emonic bere, escatuco jacu contu ta errazoia: baldin Meza enzun badogu, ea ondo, ta atan pensetan dogula enzun dogunez. Baldin barau eguiñ badogu, Oraciñoan egon bagara, Pobre esquecoari limosna emon badeutsagu, (oneec obra onac dira) gauza guztioen contua escatuco jacu, ea vaneriaz ta eder erchite arren, munduagaitic, ala Jangoicoa gatic eta gogo onagaz, ta beardon leguez eguiñ doguzanez. Alan dirauscu David Profectac Jangoicoaren icenean verbatuten dala. psal. 74. Dempora neure aldetic artzen dodanean, eriotzaco orduan, ain estu contu artuco dot, ece eguite onac bere, ea ondo, men menean, ta bear zan leguez eguiñac cirianez, essaminatu, aracatu, icusi, ta juzgatuco dodaz. Obra onac bere baldin ondo ta gogo onaz eguiñac ezpadira, gaistotzat emonic condenatuco ditu Jangoicoac.

4. §.

Baldin oraingo demporau, orain escuen artean doguna, ondo emoten ezpadogu, guerta liteque, etorquizuneco quendu ta ucatutea. Eta orrez guztiaz, ain da andia gure zoraqueria, ta itsutasuna, eceuste dogu, lengo demporea deunguero emon arren, aurrerocoan bere ucatu ez jacula demporea. Baldin Mercatari batec emongo baleusquio bere semeari diru pilo andi bat, maneatu, ta emon leguian tratuan, ta Merquetarintzan; ta alan tratua icasiric, berac berez cerbait irabaci leguian: Eta orduan Seme onec bere Aitac emonico diru guztiac urtuco balitu jocoan, jan edanean, gaistaquerian, ta arloterian, errazoiaz liteque Seme au bildur, ez leusquiela beste bein bere Aitac diruric emongo ez fiatuko, ta len emonac bere quendu ez leguiozan. Alan bada, errazoiaz gu bere bildur izan bear gara quendu eztaigun gueure Jangoicoac etorquizuneco demporea, igaroa ain donguero emon ezquiero. Alan Noe Santuaren demporan, eun

ta oguei urte biciteco esqueñi ta promestu arren, quendu eutsézan azqueneco ogueiac, lenagoco eun urteac deunguero emon cituezala orduco guizonac. Au adierazoten dau Davidec, diñoanean psal. 54. «Guizon gaisto odol-issurleac, guizon iltzalleac; guerraguillac, mali-ciadunac, ta engañatzalleac eztituez euren egunac erdizcatuco, erdibituko, eztira beste alacoac eztirianen erdia bicico».

Batzuc euren gazte demporan, odol beroa dauquenean, bici dira, Jangoicoric, eriotzaric, infernuric, contu emon bearric ezpalego leguez, libertade andian, milla becatu, gaistaqueria, engaña-mendu eguiten dituezala: gorputzari al dituezan atseguiñac ta goza-rotasunac emoten deutsezala. Baña guero zartzaroan, odola otzten asten jaquenean, asten dira etorquizunaz gomutetan; ill bear dabela, ilcorrac diriala, ta ilte-orduan contu estua emon bearco dabela gogo-ratu ta oartutен. Eta andic ara, alan euren buruai oartu ezquiero, itzulten dabe planea, iruli ta biurtzen dabe orria beste aldera; eta len gaistoac baciran, guero onac, prestuac, zurrac, beguiratuac, contuzcoac, ta ardurazcoac eguiten dira. Alangoac *zati bitan erdibituten dituez euren egunac*. Bada erdi bata; gaztetasuna deunguero ta charqui emon baeben bere, beste erdia, zartasuna ondo azquen-duten dabe. Eta au da azquenean ondo erdibitutea, gaisto izatea ichiric, ona eguitea, San Pablo batec leguez eguitea.

Baña barriz beste batzuc gaztetasunean dira onac, prestuac, debotoac, vertutera emonac, eta zartzean gaistoac, oquerrac, don-gueac. Asitean on, ta acabatzean gaisto, Judas izan zan leguez. One-lacoac «erdibituten dituez euren egunac», zati ta erdi bi eguiten dituez. Bada zartasunean gaistoac badira bere, gazte demporan onac izan cirian. Baña au da deungaro charto egunac erdizcatutea, cerren onetic gaistora aldatutен dira. Esta aimbatic aimbatean deungago, ta pelligruczccago da, zartzaroan gaisto izatea, gazte-tasunean baño.

Baña azquenez, beste batzuc «eztituez iños erdibituten euren egunac». Bada alan zarreran, celan gaztetan dagoz buruz sarturic gaistaquerian, ta becatuan. Eta alaccac dacusenean euren egunac laburtuaz, ta acabatuaz doazala, eriotzea urtu, ta elduten jaquela, contua emon bear dabela; orduan celan igaroaz contu charra emon daben, eztira comunqui enzunac izango; ez jaque euren verbai sinis-teric emongo, ezta euren esanetan iñor fiatuko. Alan esan eban Angueru batec onelacoacaz verba eguiten ebala «etzala izango »gueiago demporatic, acabatuco ciriala gueroco guero guztiac». Apocal. 10.

Eguin ta asmatu guiñeiz milla gogoeta, itzul-inguru, igues-bide, ta asmo, baña guero ta guero bere, ecin igues eguin guiñeiquian ordura, bemporara ta puntura eldu ta bildu bearco gara. San Gregorioc dacar onetaraco jazoera, edo guertaldi bat, eta diño hom. 12. sup. evang. et 4. dialog. c. 38. «Crisaorio cerichan guizon gaisto batec »bere azqueneco orduan cegoala, munduan eguin al cirian erregu »ta escariac eguiña gaitic, ecin erdetsi ebala biaramoneco lucemen-»dua: Estutu, ta larritu zanean, gura eban apur bat lucetu; gura »eban biaramona guiñoco dempora irabaci: verba eder asco aotic »atera cituan; promes, esquentza, ta dedar asco eguiten cituan: »ascotan egun bateco epea, ta astia escatuten eban. Baña guztia salperric. Dedarrez, oioz, ta promesetan cegoala, bere egunac acabatu »cituzan, arimac urten eutsan, ta betico ondatu zan Infernua».

5. §.

Bada onela, bapere cenzunic badogu, ezcarra guerotic guerora ibilli bear: eztogu aurreracaoan demporaric galdu bear. Lenago bai, len galdu doguna, bear dogu orain irabaci, cobratu, ta sendatu. Baña celan, edo ce moldez irabaci, ta cobratu al liteque? Eada, joana, joan da; igaroa, igaro da; ezta aren biurtzeric, ta ez escuratureric. Eranzuten dau San Gregorioc verba guichitan, ta laburqui: lib. moral c. 28. «Dempora igaroa erosí, ta gueuretuten da, nox »eta bicitza gaisto igaroa, barreca, ta pozcaria charretan galdu »doguna, negarrez neque ta penitencia eguiazcoa caz erosí, cobratu, »ta irabazten dogunean». Esan gura dau: Dempora igaroa, deunguero emon guenduena, escu artetic joan jacuna, erdetsiten dogu, orduco atseguintasunen ordean, orain neque-pena bibidertuac artutен doguzanean: Orduan eguin bear guenduzan eguite onac, eta orain eguin bear doguzanac, orainche eguiten doguzanean. Au berau da Santo Tomasec bere, Satisfaciñoaren ganean verba eguiten dabela, diraus-cuna in addit. q. 15. a. l. ad 4. «Guizonac dempora igaroa ecin osotu »ta cobratu badau bere, baña orrez guztiaz, erremediatu lei, lena-»goco utsac, ta len eguin bear cituan gauza onac, eguiten dituzala »etorquizunean». Baldin len Meza bat enzun bear cedula, ichi bacenduan, confesatu uts eguite ori, ta guero etorquizunean bi enzun. Baldin lengo dempora igaroan egun baten barau eguin bear bacenduan, ta ecenduan eguin, lenic confesatu becatu ori, ta etorquizunean barau bi atera. Onela dempora igaroa donguero emona erosí, erre-mediatu, quititu, ordetu, ta irabazten dozu nola bait, edo moduren

baten. Ordu hico bidea igaroteco dozunean, ta ordu atatic bata alperquerian, jan edanean, ta arloterian igaro dozunean, ce bitarteko ceure bidea demporaz, ilundu, berandutu, ta gaubetu baga azquenduteco? Jazo jatzun utsa bete ta estalduteco? Cer? Gelditzen jatzun ordu atan, ain cinez, gogoz, eguiaz ta bizcar lastertu ta abiatuten zara, non ordu bico bidea, baten eguiten dozu; ta onela bete, ta estaldutene dozu lengo utseguita, ta alperqueria. Bada onetara guc bere gure dempora, orainguiño, alperquerian, ta gaistaquerian deunguero emon doguna, orain ontasunean bibiderturic ta laster eguiñaz bear dogu cobratu, ta erdetsi. Alan esaten da, ardiac bere, arrats aldean arinago ta lasterrago janez, bere goxeco guichi jana erremedietan dabela. Orregaitic hastiaren Jabeac bere, arratsaldean bear eguiten asi cirian languillai ta, achurlariai emon eutsen aimbat aloguera ta bearsari, cein goxetic bear eguin ebenai. Cerren arrats aldean asi cirianac ain ciñez ta gogotic emon cirian escu bearrena ta lanera, ece oneec dempora guichian, besteac ascoan aimbeste lan eguin eben.

Bada au berau eguin bear dogu guc bere orain arrats aldean, zartzaroan, gueure egunoc acabetara doazanean. Orain badacusgu, ia adinara ta urte andietara sartuaz, zartzeaz goazala, eriotzaco portura urtutene gareala, emengoaz eguitecourrean gabiltzala. Orain bada, orain estetu bear gara, orain bear deutsegu escuai eraguin. Orain bacochari berea biurtu; orain arerioaz baquetu, adisquidatu, ta verba eguin. Orain vizitza barri on bat asi: eci gueure griña gais-toac; jarraitu Ceruco videari; maitetu vertutea; ta zaletu Jangoicoaren gaucetara. Orain etorquizunean, gueroocoan pensatu. Orain egua guztiaz, biotzezco damu benetaco bategaz, ta gueiago becaturic ez eguiteco borondate irme sendo bategaz, lenagotic conciencia ondo essaminaturic, arguiro osoro ta eguiaz confesatu: confesatu ezquiero, aldeguin becatuzco ocasioñetatic, lagun charretatic; ta proposituaz ez gueiago aetara biurtu. Onela dempora igaroa, ain gauza estimagarria ta balio andicoa, guerotic querora ibilteaz galdu doguna, al dan ondoen erremediatu, cobratu, eros, ta irabacico dogu.

(Jarraituco da)